



PANTAILA TXIKIAN

Gaizka IZAGIRRE BROSA

THE LAST OF US

HBO MAX

Denok ezagutzen duzue jada telesaila, baina despistatuen taldean bazaude edo oraindik ikustera animatu ez bazara, honatx gomendioa, bikaina iruditu baitzait bideojoko eza-gunaren moldaketa hau. Aurtengo fenomeno, zalantza izpirik gabe.

Cordyceps izeneko onddo batek gizateria ia osoa suntsitu –gizakien gorputzaren eta garunaren jabe egiten da– eta hogei urte geroago girotutako telesaila da. Mundu ilun eta latz horren erdian Joel eta Ellie daude, koarentena eremu batetik atera behar duten protagonistak. Hortik abiatuta, haiekin batera bidaiatuko dugu, motxila barruan drama, umore apur bat, akzioa, beldurra eta, batez ere, emozio ugari sartzen diren bitartean.

Lehenik, Pedro Pascal eta Bella Ramsey aktoreen –eta jakina pertsonaien– arteko kimika magikoa iruditu zait, telesailaren euskarririk sendoena. Gustavo Santaolallaren soinu-banda zoragarria da; girotze lana, ezin hobe; erritmoaren erabiler, milimetrikoa eta atal ba-

2023ko hamar telesail (berri) onenak

Tradizioak agintzen duen moduan, urteko azken testu hau ikusitako telesail onenak errepasatzeko aproposena izaten da. Zoritxarrez, aurten ere ezin izango dut euskarazko telesailik nabarmendu. «Primeran» iritsi da, eta zinez pozgarria da, baina oraindik herren dabilela iruditzen zait eta, batez ere, euskarazko ekoizpen propio berrien falta larria dagoela. Zerrendara jauzi egin aurretik, garrantzitsua da honako hau aipatzea: 2023an estreinatu diren telesail berriekin osatutako sailkapena da; ez larritu, beraz, «The Bear», « Fargo », « Succession » edota « Time » ez daudelako.

koitzak osotasunarekin duen garrantzia ere nabarmena iruditu zait. Harrigarria da bideojokoaren diseinu artistikoa benetako irudietara nolako zehaztasunez egokitu duten.

FLEISHMAN IS IN TROUBLE

DISNEY+

Toby eta Rachel izeneko bikotearen dibortzioari buruzko is-

torioa da honako hau; horren ondoren datorrenari buruzkoa, zehatz-mehatz. Banaketaren ostean, egun batean, Rachel arrastorik utzi gabe desagertuko da; Toby bakarrik geratuko da, bederatzi eta hamaika urteko bi seme-alabekin batera. Ez da era honetan desagertzen den lehenengo aldia, baina inoiz ez hain denbora luzez eta are gutxiago aldez aurretik jakinarazi gabe.

Haustura horren protagonista nagusiak Jesse Eisenberg eta Claire Danes direla esan behar nuen, baina Lizzy Caplan ere ezinbestean sartu behar dut hirukotean; kontakizunaren eskutik doan behar-beharrezko off-ahotsa berea delako eta ezinbesteko pertsonaia bihurtzen delako horri esker.

Egitura narratiboa deigarria iruditu zait; emazte ohiaren desagerpena argitzeko asmoz, pertsonaia nagusia iraganeko pasarteei ainguratuta bizi da,



eta telesailak egiten dituen denbora-jauziek, protagonista- ren ikuspuntutik betiere, erritmo bizia ematen diote, muntaia lan apartaz eta Caroline Shaw-en musika dotoreaz lagunduta. 30-45 urte bitarte badiotuzu, protagonista bakoitzaren zati batekin identifikatuko zarela iruditzen zait edo, behintzat, enpatia sentituko duzula.

JURY DUTY

PRIME VIDEO

Errealitatearen eta fikzioaren arteko hibridoa da « Jury Duty », eta planteatzen den joko, eta batez ere horrekin lortzen den emaitza, zoragarria iruditu zait. Dokumental formatuan, epaiketa bateko epaimahaikide jakin batzuen egu-



neroko lana erakusten du. “Baina” handi batekin: dena da faltsua. Epailea, epaiketa bera, lekukoak, abokatuak, epaimahaikideak... guztiak dira aktoreak. Tira, guztiak ez; hamabi epaimahaikide horietatik hamaika, zehatz-mehatz. Izan ere, kide horietako batek, Ronald Gladden-ek, ez baitaki dena gezurrezkoa denik eta zehatz-mehatz planifikatua dagoen istorio baten barruan murgilduta dagoenik.

Ez da *reality show* -a, ezta dokumentala ere. Serie hone-tan, pertsonaietako batek ez baitaki fikziozko telesail baten barruan dagoenik; adibidez, «The Office»-n pertsonaia guz-tiak aktoreak balira bezala, Michael Scott izan ezik. Los Angelesen girotuta dago «Jury Duty», eta hamazazpi egunez filmatu zuten, inprobisazioan esperientzia luzea duten hainbat aktoreri esker –tartean, James Marsden ezaguna ere age-ri da–. Egun horietan guztietan “esperimentua” ez-kutatu behar izan zioten Glad-den-i.

Zeure aurpegian irribarre erraldoi bat marrazteko gai izango den proposamen origi-nala, freskoa, atsegina eta oso

dibertigarria. Altxor txiki bat iruditu zait.

BLUE EYE SAMURAI

NETFLIX

Telebista itzali, ordenagailura joan eta testu hau idazten hasi naiz. «Blue Eye Samurai» amai-tu berritan, ahalik eta arinen idatzi nahi nuen iruzkin hau, txundigarria iruditu baitzait; hipnotizatu egin nau.

XVI. mendean girotuta dago, Edo dinastiaren garaian, eta protagonista nagusia Mizu izeneko ezpatari mestizoa da. Klandestinitatean bizi da, eta mendeku bila dabil gizonak nagusi diren mundu batean. Gerlariak ezkutuan gorde beharko du bere generoa, bai-ta begietako kolore salatzailea ere.

Animazio lana, eszenaratzea eta akzio eszena odoltsuak iruditu zaizkit bereziki deiga-riak, eta jakina, Mizuren per-tsonaia misteriotsua ere bai. Jidaigeki generoari –Japoniako historiako Edo aldian girotuta-ko “garaiko dramak”– ikuspegi interesgarriagoa eskaintzen dio. Eragozpen bakarra jarriko nioke: aro horretan girotuta



ko istorioa izanda, ingelesez grabatua egoteak sinesgarrita-suna kentzen dio eta helburu komertzialaz harago ez diot inolako zentzurik ikusten.

LE BUONE MADRI

DISNEY+

Italia hegoaldeko Calabriako erakunde kriminala da ‘Ndrang-heta. Siziliako Cosa Nostra edo-ta Napoliko Camorra erakun-deen nolabaiteko parekidea. Euskarara ekarrita, “gizontasun adoretzu” moduan uler geneza-ke. Benetako gertaeretan oina-rritutako Italiako telesail honek erakunde horretako hiru ema-kumeren istorioa azaltzen du: emakumeek Alessandra Cerreti izeneko fiskalarekin bat egingo dute inperio kriminal hori ba-rrutik akabatzeko.

Hiru emakumeren istorio zi-rragarria da “Le buone madri” (Ama onak) eta mafiaren mun-du patriarkala emakumeen ikuspegitik azaltzen duena. Tentsioz betea, iluna eta inter-pretazio sendoz lagunduta. Po-liziaren eta mafiaren arteko ge-

rra azaldu baino gehiago, fami-lia horietan sakontzen du, bai-na ez ditu mafiako klanak osa-tzen dituzten gizonezkoen ohiko traizioak, borrokak eta mendekuak azaltzen; gizon ho-riek klan horietako emakumeei eragindako guztia baizik.

BEEF

NETFLIX

Bi ezezagunen arteko trafiko gorabehera-istilu batek bien al-derdirik ilunena azaleratuko duen gatazka bat sortuko du. Danny Cho bere kabuz lan egi-ten duen gizona da, kontrata-tzen duten etxeetan era guztie-tako konponketak egiten dituen. Bizitza nahiko bakartia eta prekarioa darama. Amy Lau, aldiz, arrakasta handiko enpre-saria da, diruduna eta, ustez behintzat, ametsetako bizitza daraman emakumea. Txikike-ria dirudien gorabehera arrunt hori tsunami bat eragingo duen ur tanta izango da.

Bi pertsona oso desberdinen krisi existentzialari buruzko kontakizuna da, eta arazo per-tsonal horrek, hain zuzen, lehen aipatutako gertaera “txi-ki” horrekin uztartuta, geldiezi-na izango den eztanda nola era-giten duen azaltzen duena. Era oso desberdinetan bada ere, gi-zarte klaseen bi aldeetan sufri-tzen dela erakusten du telesai-lak. Aparta iruditu zait. Umore beltzez jositako telesail bizia, nahiko basatia, oso entreteniga-rria eta bisualki nortasun han-dikoa.

LA MESIAS

MOVISTAR+

Argi eta garbi esango dizuet: Espainian inoiz egin duten te-lesailik onenetarikoa da. Zazpi





ataletan banatutako telesail honen hasieran, Enric eta Irene ezagutuko ditugu, elkarren artean harremanik ez duten neba-arrebak. Harreman hori etetearen arrazoia apurka deskubritzen joango gara, baina iragan traumatiko eta ilun bati lotua dagoela aurreratuko dizuet. Hiru hamarkada baino gehiagotan hedatzen den istorioa da, baina betiere bi pertsonaia nagusien begiradatik azaldua.

Thriller familiarra, drama, beldurra eta komedia apur bat uztartzen dituen proposamen deserosoa eta xurgatzailea da, su motelean prestatua. Algoritmoen garai honetan, non guztia erritmo frenetikoan kontsumitzera behartzen gaituzten eta ikus-entzunezko lengoia ere modu horretan eraikia dagoen —adimen artifizial batek sortua izan balitz bezala—, zenbat eskertzen ditudan honelako proposamen ausart eta desberdinak.

QUESTO MONDO NON MI RENDERA CATTIVO

NETFLIX

Zerocalcare komikigile italiarraren lan berria. 2021. urtean «Strappare lungo i bordi» bikaina estreinatu zuen, bere bi- zipenetan oinarritutako animazio seriea. Erromako marrazkilari gazte batek, gizarte kontzientzia oso sakonekoak eta armadilo erraldoi bat kontzientziatzat duenak, bere

bizitza ibilbideaz eta maitasunaz hausnartzen du hiritik kanpo bidaiatzen ari den bitartean.

2023an, «Questo mondo non mi rendera cattivo»-rekin itzuli da. Protagonista eta unibertso bera, baina istorio eta egoera desberdinekin. 2021eko telesailaren mezu nagusian garuneko osasuna eta depresioa jorratzen ziren eta honetan ultraeskuinaren gorakadaz dihardu, eta egiten duguna egiten dugula mundua kaka bat dela eta pikutara doala.

SOMEWHERE BOY

FILMIN

Danny da protagonista nagusia. Umea zen, ama auto istripuan hil zenean. Oinazeak gaingiduta eta hura ere galtzeko beldurrez, umea etxean giltzapetuta uztea erabakiko du aitak. Kanpoan munstroak daudela, mundua arriskutsua dela... haurraren burua beldurrez eta izu-ikaraz betetzeko helburuz, etxetik se-

kula ez ateratzeko araua ezarriko dio.

Hala, telesailaren hasierako haur hori hemezortzi urteko nerabea den garaian girotuta dago seriea, aitzak bere buruaz beste egiten duen unean. Danny gaztea izeba Sueren etxean hartu dute. Amaitu dira aitzak ezarritako isolamendua eta gehiegizko babes, baina benetako erronka orain hasiko da berarentzat. Pixkanaka, ia estralurtarra balitz bezala, Dannyk kanpoko mundua deskubritu beharko du.

Argumentua irakurri ostean, ez pentsa misterioz beteriko thriller dramatikoak ikusiko duzunik, telesailaren helburua eta tonua oso bestelakoak baitira. Gogorra da oso, baita hunkigarria ere, baina bereziki maitasunari, doluari eta ukazioari buruzko erretratu zoragarria da. Lewis Gribben-en antzezpen lan harrigarriaren bitartez, kanpoko munduan ezagutzen ez dituen gauza guztien aurrean duen nahasmen orokorra ezin hobeki islatzen da telesailean.

POKER FACE

SKYSHOWTIME

Rian Johnson zuzendari eta Natasha Lyonne protagonista dituen ekoizpen bizia eta oso en-



tretenigarria. Lyonne-k Charlie Cale hezuramaitzen du, kasino bateko langilea eta gezurrak atzemateko berezko gaitasuna duen emakumea. Kasinoko nagusiarengandik ihesi, eta berezkoa duen dohain hori erabiliz, krimen bitxiak konpontzen saiatuko da, hainbat pertsonaia deskribaezinarekin topo egiten duen bitartean.

Atal bakoitzean istorio bat jorratzen da, eta misterio eta krimen horiei indarra eta sostengua emateko, telesaile izar gonbidatuz josia dago: Adrien Brody, Nick Nolte, Joseph Gordon-Levitt eta abar. Kontakizun osoa egituratzen duen premisa 70-80ko hamarkadetako telesailei egindako omenaldia dela iruditu zait —«Columbo» edota «Murder, She Wrote», esaterako—, baina Coen anaaien kontakizunetatik zipriztinduriko umore beltza eta erritmoa erabiliz. Generoaren zalea bazara, bereziki gozatuko duzu proposamen honekin.

